



CIF / IFK:  
P3108000E

*Donamaria  
eta  
Gaztelu*

## **Donamariako Udala / Ayuntamiento de Donamaria**

Uxarrea auzoa, 77, 1. Solairua Herriko Etxea  
C.P. / P.K. 31750 Donamaria ( Nafarroa)  
Tlf.:948 450127

<http://www.donamaria.eus> - [udala@donamaria.eus](mailto:udala@donamaria.eus)

### **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA** **SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA**

**Data/ Fecha: 2023-10-25**

**Lekua/ Lugar: Herriko Etxea/ Casa Consistorial.**

**Deialdia/ Convocatoria: Ohikoa/ Ordinaria.**

**Ordua/ Hora: 15:00**

**BERTARATUAK/ ASISTEN:**

- D. Francisco Javier Lizasoain Ariztia jn, Herriarengatik
- Dña. Miren Arregi Mindegia and, Herriarengatik
- D. Carlos Ezkurra Leonet jn, Herriarengatik
- D. Juan Javier Leache Oskoz jn, Herriarengatik.

**EZ BERTARATUAK/ NO ASISTEN:**

- Dña. Idoia Arregi Azpiroz and, Herriarengatik
- Dña. Naiara Aizpuru Sagaseta and, Herriarengatik

**ALKATEA (Bilkura buru)/ ALCALDESA (Preside la sesión):**

- Dña Natalia Rekarte Oteiza and.

**Idazkaria/ Secretaria: Dña. Leire Iragorri Litago and.**

**GAI ORDENA:**

**1.- AURREKO AKTEN ONARPENAK  
(2023-08-14)**

Idazkariak akta irakurri du.

**1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS  
ANTERIORES (14-08-2023)**

La secretaria lee el acta.

<p>AHO BATEZ onartu da.</p> <p><b>2.- BERME ITZULKETA, SASOI ERAIKUNTZAK S.L.</b></p> <p>SASOI ERAIKUNTZAK S.L.k Uxarrea auzoan hornikuntza sarea berritzean ordaindu behar izan zuen abala itzultzeko eskatu du, kontratuan zehaztutako hiru urteko epea igaro delako.</p> <p><b>AHO BATEZ erabaki da:</b></p> <p>1.- Eskatutako abala itzultzea.</p> <p>2.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.</p> <p><b>3.- AURREKONTUAREN ADALKETA</b></p> <p>Idazkariak 1/2023ko aurrekontu aldaketaren berri ematen du:</p> <p>Aparteko kreditu bidez, gasto berri hauek sortuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Obra pluviales Bidauztea, 6.200,00 €.</li> <li>- Ceramica vestuarios piscinas, 6.000,00€.</li> <li>- Su egurra, 15.000,00€.</li> <li>- Obra infraestructuras ganaderas, 35.500,00€.</li> </ul> <p>Guztira: 62.700,00€</p> <p>Gastu handiagoa, kreditu-gehikuntzaren bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- MTO red de aguas, 3.000,00€</li> <li>- Luz cloradores, 500,00€</li> <li>- Sensibilización violencia de género, 1.000,00€</li> </ul>	<p>Se aprueba POR UNANIMIDAD.</p> <p><b>2.- DEVOLUCIÓN DE GARANTÍA, SASOI ERAIKUNTZAK S.L.</b></p> <p>SASOI ERAIKUNTZAK S.L. solicita la devolución del aval que tuvo que abonar en la renovación de la red de abastecimiento en el barrio Uxarrea, por haber transcurrido el plazo de tres años establecido en el contrato.</p> <p><b>Se acuerda por UNANIMIDAD:</b></p> <p>1.- Devolver el aval solicitado.</p> <p>2º.- Notificar el presente Acuerdo al interesado para su conocimiento y efectos oportunos.</p> <p><b>3.- MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA</b></p> <p>La secretaria informa sobre la modificación presupuestaria 1/2023.</p> <p>Gastos nuevos creados, mediante crédito extraordinario:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Obra pluviales Bidauztea, 6.200,00 €.</li> <li>- Ceramica vestuarios piscinas, 6.000,00€.</li> <li>- Su egurra, 15.000,00€.</li> <li>- Obra infraestructuras ganaderas, 35.500,00€.</li> </ul> <p>En total: 62.700,00€</p> <p>Mayor gasto, mediante suplemento de crédito:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- MTO red de aguas, 3.000,00€</li> <li>- Luz cloradores, 500,00€</li> <li>- Sensibilización violencia de género, 1.000,00€</li> </ul>
---	---

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Retribucion socorristas, 1.000,00€</li> <li>- MTO piscina, 1.100,00€</li> <li>- Cederna Garalur, 1.500,00€</li> </ul> <p>Guztira: 8.100,00€</p> <p><b>AHO BATEZ erabaki da:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hasierako onespina ematea 2023/1 zenbakia duen aurrekontu-aldaketari.</li> <li>2. Jendeaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.</li> <li>3. Ohartaraztea, jendeaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespinen erabakia behin betiko onetsizat izanen dela jendeaurreko epea pasata.</li> </ol> <p><b>4.- BIDASOSTA FRONTEKO 1. POSTUAREN TITULARTASUNA ALDAKETA</b></p> <p>2023ko urriaren 11ean Manuel Recarte Ibarra eskatzen du bere izenean dagoen Bidasosta parajeko, 1. Postua, bere izenetik, Jesus Arocena Gamioaren izenera pasatzea.</p> <p><b>AHO BATEZ erabaki da:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Titulartasun aldaketa onartzea, beraz, 1. Postua Jesus Arocena Gamioari adjudikatzen zaio.</li> <li>2.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.</li> </ol> <p><b>5.- AUZOLANAREN ORDENANTZAREN MODIFIKAZIOA, HASIERAKO ONESPENA</b></p> <p>Auzolanaren funtzionamenduak eragin dituen arazoak eta egoerak ikusita, proposatu da ordenantza aldatzea,</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Retribucion socorristas, 1.000,00€</li> <li>- MTO piscina, 1.100,00€</li> <li>- Cederna Garalur, 1.500,00€</li> </ul> <p>En total: 8.100,00€</p> <p><b>SE ACUERDA:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria nº 1/2023.</li> <li>2. Exponer el expediente al público por período de quince días hábiles, previo anuncio en el tablón de anuncios municipal, a fin de quien quiera pueda examinarlo y formular reclamaciones.</li> <li>3. Advertir que, si en el periodo de exposición no se formularan reclamaciones el acuerdo se entenderá definitivo.</li> </ol> <p><b>4.- CAMBIO DE TITULARIDAD PUESTO Nº 1 DEL FRENTE BIDASOSTA</b></p> <p>El 11 de octubre de 2023, Manuel Recarte Ibarra solicitó que el puesto nº1 del paraje de Bidasosta, actualmente a su nombre, pasará a estar a nombre de Jesus Arocena Gamio.</p> <p><b>Se aprueba POR UNANIMIDAD:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aceptar el cambio de titularidad, por lo que el puesto nº1 pasará a ser adjudicado a Jesus Arocena Gamio.</li> <li>2. Notificar el presente Acuerdo al interesado para su conocimiento y efectos oportunos.</li> </ol> <p><b>5.- APROBACIÓN INICIAL, MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA DE AUZOLAN</b></p> <p>A la vista de los problemas y situaciones que ha generado el funcionamiento del Auzolan, se propone modificar la</p>
--	---

zenbait puntu berridazteko edo gehitzeko.

**AHO BATEZ erabaki da:**

1. Donamaria-Gaztelun prestazio pertsonaleko edo Auzolana arautzen duen udal-ordenantzaren aldaketaren hasierako onespena.

2. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, onetsitako aldaketa jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun baliodunetan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharra egin ahal izan ditzaten.

3. Jendaurrean jartzeko epea igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onetsiko da Donamaria-Gaztelun prestazio pertsonaleko edo Auzolana arautzen duen udal-ordenantzaren aldaketa, eta haren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**6.- ATXIKIMENDU ESKAERA ESPARRU-HITZARMENERAKO, NAFARROAKO ZERGA OGASUNAREN ETA NAFARROAKO UDALEN ARTEAN INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA LANKIDETZAN ARITZEKO ZERGEN KUDEAKETAN ETA IKUSKAPENEAN**

Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Nafarroako udalerrien artean informazioa trukatzeko eta zerga-kudeaketan eta -ikuskaritzan lankidetzan aritzeko esparru-hitzarmenaren funtzionamenduaren berri eman du idazkariak.

Aho batez erabaki da hitzarmena onartzea eta alkateari ahalmena ematea

Ordenanza para reescribir o añadir algunos puntos.

**SE ACUERDA POR UNANIMIDAD:**

1. Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza de prestación personal o Auzolan de Donamaria-Gaztelu.

2. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 325.1 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, la modificación aprobada se somete a información pública durante treinta días hábiles, a contar desde el siguiente al de publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, para que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones.

3. Si transcurrido el período de exposición pública no se formularan alegaciones, la modificación de la Ordenanza de prestación personal o Auzolan de Donamaria-Gaztelu quedará definitivamente aprobada, procediéndose a la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Navarra.

**6.- SOLICITUD DE ADHESIÓN, CONVENIO MARCO DE INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN Y COLABORACIÓN EN LA GESTIÓN E INSPECCIÓN TRIBUTARIA ENTRE HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA Y LOS MUNICIPIOS DE NAVARRA.**

La Secretaria informa del funcionamiento del convenio marco de intercambio de información y colaboración en la gestión e inspección tributaria entre Hacienda Tributaria de Navarra y los municipios de Navarra.

Se acuerda por unanimidad aceptar el convenio y facultar al alcalde para firmarlo

Udalaren izenean sinatzeko.

## 7.- ALKATE EBAZPENAK

Idazkariak azaltzen du alkate ebazpenen zerrenda (85/2023 zenbakiraino).

Zinegotziak jakitzat ematen dira.

## 8.- ESKAERAK ETA GALDERAK

1. Nazioartean gertatzen ari diren gertaerak direla eta, Palestinako bandera udalean jartzea proposatu da, herri palestinarrari babesa emateko.

Gaia aztertuko dela erabaki da.

2. Idazkariak "Red de personas torturadas en Navarra" elkarteak aurkeztutako testua irakurri du.

### Aho batez onartu da:

1.- Donamariako Udalak elkartasuna eta begirunea adierazten die torturen eta tratu txarren biktima izan diren pertsona nafarrei, eta, bereziki, udalerrri horretako bizilagunei.

2.- Udalak konpromisoa hartu du egia ezagutzen eta egon daitezkeen kasuak konpontzen laguntzeko.

3.- Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio beharrezkoak diren jarduketak guztiak egin ditzala tortura eta tratu txarrak prebenitzeko eta ezabatzeko, berriz ez gertatzeko mekanismoak ezarriz.

4.- Udalak ebazpen honen berri emango die Nafarroako Gobernuari, Herritarrekiko Harremanen Kontseilaritzari eta Bake eta Bizikidetzako Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari, jakinaren gainean egon dadin, eta "Nafarroako torturatutako pertsonen sarea" elkarteari jakinaraziko dio haren

en nombre del Ayuntamiento.

## 7.- RESOLUCIONES DE ALCALDÍA

La secretaria da nota de las resoluciones de alcaldía que se han aprobado (hasta el número 85/2023).

Los concejales se dan por enterados.

## 8.- RUEGOS Y PREGUNTAS

1. Tras los sucesos que se han ido sucediendo en la esfera internacional, se ha propuesto poner una bandera palestina como muestra de apoyo al pueblo palestino.

Se decide que se analizará el asunto.

2. La secretaria da lectura al texto presentado por la Asociación "Red de personas torturadas en Navarra".


### Se aprueba por unanimidad:

1.- El Ayuntamiento de Donamaria manifiesta su solidaridad y reconocimiento a las personas navarras víctimas de la tortura y malos tratos y especialmente con las personas vecinas de este municipio.

2.- El Ayuntamiento muestra su compromiso a contribuir en el conocimiento de la verdad y la reparación de los posibles casos que hubiese.

3.- El Ayuntamiento insta al Gobierno de Navarra a realizar todas las actuaciones necesarias para prevenir y eliminar la practica de la tortura y los malos tratos estableciendo mecanismos de no repetición.

4.- El Ayuntamiento dará traslado de esta resolución al Gobierno de Navarra, a la Consejería de Relaciones Ciudadanas y la Dirección General del Departamento de Paz y Convivencia para su conocimiento e informará de su aprobación a la Asociación "Red de personas torturadas

<p>onarpena.</p> <p><b>9.- UDAL INFORMAZIOA</b></p> <p>Idazkariak adierazi du 2022ko azaroan ekarpen ekonomiko bat eskatu zitzaiola Nafarroa Oinez elkarteari. Eskaera osoko bilkuran onartu zen, baina ez zen aktan jaso.</p> <p>Beraz, berriro egin da eskaera, eta 50 euroko ekarpena onartzea erabaki da.</p>	<p>en Navarra”.</p> <p><b>9.- INFORMACIÓN MUNICIPAL</b></p> <p>La secretaria comenta que se solicito una aportación económica para Nafarroa Oinez en noviembre de 2022. La solicitud fue aprobada en pleno, pero no se anotó en el acta.</p> <p>Por lo tanto, se vuelve a repetir la solicitud y se acuerda aprobar una aportación de 50 euros.</p>
<p>Aztergai gehiagorik egon ez denez, alkateak bilera amaitutzat eman du 16:30tan, eta nik, idazkariak, ziurtatu egiten dut.</p> <p>Donamaria, 2023ko abuztuaren 25a</p> <p><b>ALKATEA/LA ALCALDESA</b></p> <p>Natalia Rekarte Oteiza</p> 	<p>No habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión a las 16:30 horas, lo que yo, la Secretaria, certifico.</p> <p>En Donamaria, a 25 de agosto de 2023</p> <p><b>IDAZKARIA/ LA SECRETARIA</b></p> <p>Leire Irigorri Litago</p> 